



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
© 948 634 005  
948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

## 2019KO URRIAREN 22KO EZ OHIKO OSOKO BILERAREN AKTA

**Deialdia:** Lehenengoa.

**Bilera:** ez -ohizkoa.

**Eguna:** 2019.10.22.

**Ordua:** Arratsaldeko 18:15etan.

**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Dabid Iturria Almandoz jn.

Iñigo Sarrias Zoco jn.

Leire Mitxelena Gamio and.

Beñat Mitxelena Damboriena jn.

Imanol Lukanbio Larretxea jn.

Joseba Pikabea Iribarren jn.

Markel Jorajuria Elizondo jn.

### **Idazkaria:**

Ainara Velez Ara and.

### AZTERGAIK:

1. PEAU Arantzako Hotela.
2. Udal Batzarren aldizkotasuna
3. 2020 besta eguna
4. Arantzako Osasun Etxeko obren esleipena
5. Santiago Alzuri Vergara: Oihan aprobetxamendua
6. Gerardo Michelena Echeveste: Oihan aprobetxamendua
7. Kataluniako egoeraren inguruan adierazpen instituzionala
8. Uraren bailararen ordezkaria izendatu
9. Alkatearen ebazpenak
10. Eskaerak ea galderak

### 1. PEAU ARANTZAKO HOTELA

Arantzako Hoteleko arduradunak, beraien proiektua udalbatzako kideei azaltzera bertaratu dira.

## 2. UDALBATZAREN ALDIZKOTASUNA

Udalbatzak ohiko osoko bilkuraren aldizkotasuna hilabeteko hirugarren asteartean, 18:00etan ospatzea proposatzen da.

Udal batzak aho batez onartu du:

1.- Ohiko osoko bilkura hilabeteko hirugarren asteartean, 18:00tan egitea.

## 3. 2020 BESTA EGUNA

Gaia azaldurik eta udalbatzako kideak beraien iritziak adierazi ondoren, Udalbatzak **aho batez erabaki du**:

1.- 2020ko besta eguna, inauterietako ostirala izanen dela.

2. Erabaki hau Nafar Gobernuari helaraziko zaio, dagozkion ondorioetarako.

## 4. ARANTZAKO OSASUN ETXEKO OBREN ESLEIPENA

Ikusirik 2019/02/04an Arantzako Udalak Osasun Kontsultategia berritzeko diru laguntza eskaera egiteko akordioa hartu zuela.

Osasunbideako Zuzendariaren 348/2019 ebazpen bidez, 24. 099,72 € diru laguntza onartu zuen.

Lanaren memoria Beñat Aleman Ollok egin zuen, 18.441,78€ko(BEZ kanpo) aurrekontua izanik .

Ikusirik Arantzako Udalak hiru enpresei bidali egin ziela prozeduran parte hartzeko gonbidapena: I.M ARRIXKO IGELTZERITZA S.L, ERLAITZ ERAIKUNTZAK eta GAZMENDI ERAIKUNTZAK.

Enpresa bakarra aurkeztuz proposamena, proiektuaren memoriak aldaketa izan zuen, aurkezturiko enpresa bakarrari I.M ARRIXKO S.Lri egoera honen berri eman zitzaion.

Ohiko osoko bilkurak **aho batez erabaki du**:

1.- I.M ARRIXKO IGELTZERITZA S.L enpresari Arantzako Osasun kontsultegiaren obra esleitzea, 23.672,50€tan (BEZ kanpo).

2.- Akordio hau interesatuei jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

## 5. SANTOS ALZURI VERGARA: OIHAN APROBETXAMENDUA

Ikusirik Santos Alzuri Vergara jaunak aurkeztutako eskaera, Unanua alderdian dauden zuhaitzen (pinuaren matarrasa) aprobetxamendua egiteko, 6. poligonoko 332. lur zatian.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1.- Santos Alzuri Vergarai jaunari eskatutako oihan aprobetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, aprobetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2.- Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentura bidaltzea.

3.- Eskatzaileari jakinaraztea aprobetxamendua egin ondoren itxidura kentzeko asmoa izanik, gomendatzen dela bildu eta bertan ez uztea.

4.- Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

5.- Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

## 6. GERARDO MICHELENA ECHEVESTE: OIHAN APROBETXAMENDUA

Ikusirik Gerardo Michelena Echeveste jaunak aurkeztutako eskaerak, Olaujaren Borda alderdian dauden zuhaitzen (pinuaren matarrasa) aprobetxamendua egiteko, 2. poligonoko 175. lur zatian eta Ostolo alderdian dauden zuhaitzen (pinuaren matarrasa) aprobetxamendua egiteko, 2. Poligonoko 231 lursailean .

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1.- Gerardo Michelena Echeveste jaunari eskatutako oihan aprobetxamenduen eskaerari aldeko txostena ematea, aprobetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2.- Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentura bidaltzea.

3.- Eskatzaileari jakinaraztea aprobetxamendua egin ondoren itxidura kentzeko asmoa izanik, gomendatzen dela bildu eta bertan ez uztea.

4.- Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

5.- Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

## 7. KATALUNIako EGOERAREN INGURUAN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Ohiko osoko bilkurak aho batez ondoren osoki traskribatzen den adierazpen instituzionala onartzen du:

"Espainiako Auzitegi Gorenak Kataluniako independentismoaren liderren aurka emandako epaiaren aurrean Arantzako Udalak ondorengo adierazten du:

1.- Epai honek agerian uzten du Estatuak, botere judiziala tresna politiko huts gisa hartuta, gure herrien autodeterminazio-eskubidea defendatzen dugunontzat ezarritako prezioa: gerra ekonomikoa, 155 eta espetxea.

2.- Berretsi egiten du funtsezko printzipio demokratiko guztiekiko konpromisoa, eta elkartasuna adierazten die Catalunyako herriari, independentista kondenatuei, haien senitarteko eta lagunei, baita Espainiako Gobernuak gidatuta demokraziaren aurkako errepresio politikoa pairatzen duten pertsona eta erakunde guztiei.

3.- Herrien autodeterminazio-eskubidea lantzeko konpromisoa bere egiten du, herrien asmo demokratikoaren adierazpena ahalbideratu eta erabakiak errespetatuak izan daitezen.

4.- Gure etorkizuna erabaki nahi dugun herrien eta bertako herritarren borondate librearekiko errespetutik abiatuta, gure etorkizuna eraiki nahi dugula berresten du.

5.- Espainiako Gobernuari eskatzen dio bertan behera utz dezala demokraziaren oinarriko printzipioen aurkakoa den errepresio estrategia.

6.- Espainiako Gobernuari eskatzen dio aske utz ditzala espetxeratuak eta bertan behera utz ditzala erbesteratuen aurkako auzibideak.

7.- Deialdia egiten dio jendarteari deitutako mobilizazio guztietan parte har dezan."

## 8. URAREN BAILARAREN ORDEZKARIA IZENDATU

Ohiko Osoko bilkurak aho batez erabaki du:

- 1.- Uraren Baileraren ordezkari: Dabid Iturria Almandoz izendatzen du.
- 2.- Akordio hau Uraren Bailerari jakinaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako erabakitzen du.

#### 9. ALKATEAREN EBAZPENAK


Alkateak emandako ebazpenen berri ematen da, 2019/131 eta 2019/132:

- 1.- Udalbatzak aho batez ebazpenak berresten ditu.

#### 10. ESKAERA ETA GALDERAK

Ez dira egin

Alkatea jaunak bilkura amaitutzat eman du 21:00etan. Idazkaria naizenez, horren fede emanez.

ALKATEA,  IDAZKARIA, 